



BAIGORRIKO HERRIA

COMMUNE DE  
SAINT ETIENNE DE BAIGORRY

## 2021eko abenduaren 17ko kontseiluko bilkuraren bilduma

Gomita eguna : 2021ko abenduaren 6a

Jean-Michel COSCARAT, BAIGORRIko auzapezaren lehendakaritzapeko kontseilarien billkura

Herriko kontseilarien kopurua : 15

Hor ziren (14) : Jean-Michel Coscarat, Annie Juantorena, Bernadette Mousquès, Marie-Agnès Haristoy, Maddalen Dupuy, Isabelle Arangoits, Hélène Deguiraud, Antton Curutcharry, Daniel Ithurburua, Betti Bidart, Betti Olçomendy, Jean-Paul Bibes

Falta baina poderea emana (1): Sébastien Clauzel, JM Coscarat-eri poderea emaiten

Falta eta barkatuak : 0

Bilkurako idazkaria : Jean-Paul Bibes

Cécile Larue, idazkari nagusiaren laguntzarekin

*Début : 20:35*

### Mintzagaiak :

N° ordr e	Mintzagaiak	Bozkak
0	<b>2021eko herriko kontseiluko bilkuraren onarpena</b>	Aho batez onartua
1	<b>Inkesta publikoen bukatzearen ondotik erabakia</b>  Inkesta publikoen ondotik eta ikertzaile inkestalariaren bildumaren ondotik, Oilarandoiko bidexkaren desklasamendua. Horren kariatara noiztenkako bide zor bat gehituko da notario aktoan. Lur eremua euro bat metra karratua saldua izanen zaio Frantxua Mocho-ri.	Ahoz batez onartua (MOCHO jauna atera delarik deliborio denboran)
2	<b>Elektrika hedadura</b>  Gastu orokorrak : 42 803,27 eurokoak dira. SDEPA eta FACE egituren dirulaguntza 30 762,71ekoak dira. Galdatzaileari zor zaiona : 12040,56 €	Aho batez onartua

3	<p><b>Baigorri/ Tafalla bidezkatzekari gastuen ordainketa</b></p> <p>Tafalla/Baigorri bidezkatzekari, gastuak eta diru sartzeak Animazio batzordea elkarteak aintzinatu ditu.</p> <p>5 659,54 euroko diru galtzea gelditzen da, herriko etxeak elkarteari ordainduko diona</p>	Aho batez onartua
4	<p><b>M57 kontabilitate modura pasatzea</b></p> <p>2023ko urtarrilaren 1etik goiti kontabilitatearen aurkezpena aldatuko da.</p> <p>M57 modura pasatzen da herria, 2022ko urtea "entsegu urtea" izanen delarik.</p>	Aho batez onartua
5	<p><b>Hornitua den harleku bat</b></p> <p>2020eko urriaren 7tik goiti, herri guzietan elkorrei, gaizki entzuten dutenei edo mintzatzeko arazoak dituzten pertsonen materiala bat proposatu behar zaiete.</p> <p>Herri elkargoarekin elkarrekilako gastu partekatze baten ondotik, Elio Connect zerbitzua materiala jendearen esku izanen da. Dohainiko zerbitzua da, 2022ko urtarrilaren 1etik goiti ibiliko dena.</p>	Aho batez onartua
6	<p><b>Elektrika eta gaza manatze orokor baten parte hartzea</b></p> <p>2021eko azaroaren 9an, herrien gastuen ttipitzeko, herri elkargoak hitzarmen kolektibo bat izenpetu du, argi indarra eta gazari buruz.</p> <p>Baigorriko herriari proposatua zaio programa hortan parte hartzea.</p> <p>Onartua.</p>	<p>Onartua</p> <p>9 boz alde 5 boz kontra abstentzio bat</p>
7	<p><b>FNOFO mozioaren onarpena</b></p> <p>Oihanezko herrientzat mozioaren onarpena</p>	Aho batez onartua
8	<p><b>Baigorriko baleako mendi ibiltzailearen legedia</b></p> <p>Auzapez jaunak orroitarazten du mendi ibiltzailearen araudiak zein diren. Herriko etxeak erabaki bat hartzen du horri buruz.</p>	Aho batez onartua

<b>9</b>	<p><b>Arno sindikata eta Baigorriko lan partekartu eremuaren alokairuen prezioaren finkatzea</b></p> <p>Arno sindikataren hilabateko alokairua : 150 €</p> <p>Lan partekatua : 5 € egunerdia, 8 € eguna.</p> <p>Hilabete bateko gastuak :</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Astean bi egunerdi edo egun oso bat : 25 €</li> <li>• Bi egun astean : 45 €</li> <li>• Hiru egun astean : 60 €</li> <li>• Lau egun astean : 70 €</li> <li>• Bost egun astean : 80 €</li> </ul>	Aho batez onartua
<b>10</b>	<p><b>Irulegiko herriaren diru parte hartzea eskola publikoaren gastuetan</b></p> <p>2020eko urtearen hilabeteke prezio finkoa : 884 €, 2021eko urtearen hilabeteke prezio finkoa : 900 €</p>	Aho batez onartua
<b>11</b>	<p><b>Bide toponimia</b></p> <p>Bi bide toponimien gehitzea :</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• PIARREN bordako bidea</li> <li>• SALABERRIKO bidea</li> </ul>	Aho batez onartua
<b>12</b>	<p><b>« Cuburu » familiaren karrikako etxea</b></p> <p>Etxearen desjabetu prozeduraren segitzea, onura publikoaren kondu. Txostenaren kudeatzeko baimena emana zaio Auzapez jaunari</p>	Aho batez onartua
<b>13</b>	<p><b>APL hitzarmenak</b></p> <p>APL hitzarmenaren bukatze abisu bat emanen da Elizondoa etxea eta apezetxearentzat. Kontratuaren haustea : 2022ko ekainaren 30ean.</p>	Aho batez onartua

<b>14</b>	<b>Herriko zergaren ehunekoa (« Taxe aménagement »)</b>  Zerga hau ordaintzen da etxe eraikitze edo haunditzekari. 759/m <sup>2</sup> x tasa. %-2koaren mantentzea	Kanbiamenarik ez, orduan deliberorik ez
<b>15</b>	<b>Departamenduarekin ditugun hitzarmenen arraberritzea</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Jean Pujo herriko eskolaren okupazioarentzat</li><li>• Departamenduak prestatu bazkariak kanpokoentzat</li></ul>	Aho batez onartua

Galdera orotarik.

-

*Fin : 22 20*

Compte-rendu affiché conformément à l'article L2121-25 du code général des collectivités territoriales